

**BERRIZ.** Olakueta auzoa konpontzeko 60 milioi erabiliko dabez, aurten



AITZIBER BASAURI

## Olakueta plazaa barriztetako beharrak hasita dagoz

Olakueta plazaa barrizteko lanak hasita dagoz, dagoeneko. Aldaketak begibistakoak dira, ganera. Izan be, probalekuraino igoteko eskailerea be desgertuta dago-eta. Jaurlaritzak bultzatutako Izartu planaren bidez —hondatutako uri eremuak barriztetako—, jasotako dirulaguntzeagaz Udalak egin gura dauzan egitasmoetariko bat da hori. Bost urtean 535 milioi erabiliko dabez Olakueta auzoa zaharbarritzeko. Aurten, aurrekontuetan

60 milioi gorde dabez lanotarako; Jaurlaritzak erdia ipiniko dau. Udalak Olakuetak bizilagunen bizi kalidadea hobetzea dauka helburutzat. Lanoz ganera Eitua industri eremuan be solairu biko eraikina eregi gura dabe. Batetik, udal zerbitzuak jarri gura dabez, eta, bestetik, tailer eskolea, edo enpresak sortzeko ekimena bultzatu. Era beran, Padure, Errotatxo eta Murgoitio auzoak atondu, eta, Trefilerian Kultur Etxea eregi gura dabe.

**ELORRIO.** Trinstans taldeak eta Pepin Tre-k saioa eskainiko dabe

# Agertoki osteko itzaleko lana sarituko dau Arriolak

Arriola Sariak 2001 jaialdia ospatuko dabe gaur, 22:30ean

Aitziber Basauri |

Arriola Sariak 2001 jaialdia ospatuko dabe gaur, Elorrioren. Aurten, zortzigarren edizinoa daukien sariokaz, agertokiaren osteko itzaleko lana goratu gura dau Arriola Kultur Aretoa. Urtero moduan, publikoa be sarituko dabe, «proiektuan sinistu dabenez guztiei omenaldia eskainita». Teknikarien lanari, kudeaketeagaz eta banaketeagaz arduratzen diran profesionali, sortzaile plastikoari, sektoreko editorialei eta ekimen pribau batek ikuskizun gunea kudeatzeari emon deutso garrantzia, aurten, Arriola Kultur Aretoa.

La Fundacion Aretoa (Bilbo), izango da sarituetako bat —egoitzea Deustuan dauka—. Luque Tagua eta Laura Etxebarriak zuzendutako aretoaren jardura nagusia dantzea izan arren, azken urteetan, ikuslegoari, kalidatezko ikuskizunak eskaini izana hartu dau kontuan Arriolak: «uribilduko programazio artistikoa —batez be publi-

koa dana— ekimen pribau bategaz aberastu dau». Era berean, topaguneak, ikastaroak eta dantza seminarioak eratzen dabezala gogoratu dabe.

**Jose Ibarrola, Aitor Agorria, Eva Forest eta Julio Perugorria**

Euskal antzerki ekoizpenean egindako lanagatik izango da saritua Jose Ibarrola be. «Bere lan kontuan hartu barik, ezin dogu ulertu azken hamarkadetakoko euskal antzerki ekoizpena». Hainbat ikuskizuneko zuzendari, margolari, marrazkigile, eskultore, eta eszenografoa da bilbotar hori. «Zuzendari artistiko moduan, bere beharra, eszenografia eta jantzien diseinutik, lana sustatzeko kartelen diseinura doa», dino. Itzeleko lanaren erakusle ontzat jo dabe Aitor Agorria Zornotza Aretoko teknikariak egindako; «publikoaren txaloak jasoko dabezen zerbitzura erabat».

IRU editorialeko kide Eva Forestek be jasoko dau saria. «Europako dramaturgo onenen

itzulpenak (Fo, Bernhard, Weis, Passolini), autore garaikideen testuak, eta antzerkiari buruzko liburu teorikoak aurkitu leitezke liburudendetan, horreen lanari esker», jakinarazo dabe Arriolatik. Azkenik, Julio Perugorria be omenduko dabe; J.P. Producciones enprearen eta Tentazioak ekoizpen etxearen kidea. Aktorea eta Geroa antzerki taldeko kide izandakoak, azken urteetan, ekoizle eta banatzaile lanetan jardun dau, besteak beste. Arriolan bertan estreinau dau, ganera, bakarka ekoiztutako *Los dias felices* antzezlan.

Ekitaldia Galiziako Trinstans *a cappella* boskotearen *A cappella o muelle* saioagaz hasiko da, 22:30ean. Antzerki elementuak sartuta, operatik heavy-ra arteko lantzen dau Trinstansek; funkia, bluesa edo musika ispirituala barne. Sarien ostean, barriz, Pepin Tre kantautoreak *Verdades como puños* ikuskizun berezia eskainiko dau. Ekitaldiagaz amaitzeko koktela eta jaia izango dira Ateneoan.

**IURRETA.** San Migel fundizinoaren alboan

## Maspe kalean 400 bat autorentako aparkalekua egokituko dabe laster

A.B. |

Maspe kalean —San Migel fundizinoaren alboan— aparkaleku barria egokituko dau Iurretako Udalak, laster. Bertan, 400 bat ibilgailurendako lekua atonduko dabe. Halan aparkatzeko dagoen leku premineari erantzungo jako...

Kontuan hartzeko da, datorren urtean, Askondo plazan boulevard barria eregiten hasiko dirala. Ondorioz, aparkaleku faltea areagotuko da. «Boulebarrak jarrean inguru guztia atonduko dogu; eta orain dagozan 80 aparkalekutik 30 geratuko dira», dino Jose Martin Etxebarria alkateak. Lanak aurten ziran hasteko; azkenean, barriz, aurrekontuak be igon egin dau. Guztira, 111 milioi inguru erabiliko dabez.

«Preminazkoa deritxagu ingurua atontzeari. Izan be, herrigunean batzen dira biztanlerik gehienak. Iurretak 4.400 biztale daukaz, eta ho-

reetatik 3.500 herrigunean bizi dira. Ganera, urteetan ez da ezelango lanik egin bertan. Amilburu plaza eta etxebizitza barriak baino ez dira eregi», dino alkateak

**Lau edo bost urterako aparkalekua**

Halandabe, aldi baterakoa izango da Maspe kaleko aparkalekuak —10.000 metro koadroko azalera izango dau—; «gixtinez lau edo bost urtean mantenduko dogu, Padureta inguruaren urigintza egitasmoa onartu artean. Gaur egun, geldi dago eta ez dau erabilten», dino Etxebarriak.

Paduretan 300 etxebizitzatik gora eregiko dabez 60.000 metro koadroan; halandaze, lanak hastean, aparkalekua kendu beharko dabe. «Dana dala, inguru horretan, Bixente Kapanagan, 4.000 metro koadro herriaren esku geratuko dira, eta aparkalekuak egokituko doguz», dino alkateak

**ABADIÑO.** Laubidetan eregi gura dabe

## Matiena auzoan Kultur Etxe barria eregiteko egitasmoa eskatu dabe, dagoeneko

A.B. |

Matienan Kultur Etxea eregiteko egitasmoa eskatu dau Kultura Kontseiluak. Zemendiaren amaierarako, barriz, proiektuaren lehen oinarriak, eta hasikerako aurrekontua izango dabelakoan dagoz. Horixe dino Abadiño-ko alkate Jabier Uriartek. «Gobernu Taldeak lehenengo zirriborroa aurkeztu eban, halandabe, ez zan ezer egiterik egon. Halandaze, dagozan eskaerak batu eta egitasmoa eskatzea adostu dau Kultura Kontseiluak».

Laubidetan egiten diharduen etxebizitza barrien atzekaldean, errekearen parean eregi gura dabe Kultur Etxea. Kultura Kontseiluak oinarritzko azpiegitura egitea proposatu dau: «Ostean preminearen arabera, espazioa manpareagaz banatzea proposatu da», azaldu dau alkateak.

Eraikin barriak 400 metro koadroko oinarriagaz 3 solairu eukiko leukez. Liburutegia, alkarreendako gelak, batzarretarako gelea, eta ikastaroetako aulak jarrea gura dabez, besteak beste.

### AGENDA

#### DURANGO

**Ikuskizuna:** Elorrioko Non Demontre musika taldeak, bere azken ikuskizuna taularatuko dau San Agustin Kultur Aretoa, 23:00etan.

#### IURRETA

**Kontzertua:** Sanmigeletako urteroko

kontzertuan Kaotiko, Koma eta Su ta Gar taldeek jardungo dabe gaur, 22:30ean, Aita San Migel plazan.

**Pelotea:** Iurreta-Durango pelota partidua, 19:00etan.

#### ERMUA

**Antzerkia:** Trapu Zaharra eta Zanguango Teatrotoren eskutik, *Pan con pan* antzezlan Ermua Zinema, 22:15ean.